

Nola hustu nuen gurasoen etxea

Lydia Flem

Itzultzailea: Joxan Elozegi

2005

Alberdania

Liburuaren lehen partea saiakera laburtzat jo dezakegu, oinordekotzari buruzko gogoeta bat baita: zer egin gurasoek bizi zirenean oparitu ez zizkiguten eta orain oinordekotzan jasotako objetuekin? Bigarren partean egilearen esperientzia pertsonala kontatzen zaigu: alaba bakarra, aita hil eta bi urtera hil zitzaion ama ere. Hala, bakar-bakarrik aurkituko da gurasoen etxea husten. Etxe isila, objektu isilez bete. Gurasoak bizitza osoan alabarenganako izan ziren bezain isilak. Isilpean eta ezkutaturik gorde nahi izan baitzuten iragana: juduak izaki, holokaustoaren oinordeko zuzenak izan baitziren.

Izan ere, etxea husteak lanak emango badizkio ere –objetu batzuk gorde eta beste batzuk eman, saldu edo bota–, barrua hustu beharra antzematen zaio oroz gain Lydia Flemi.

Nahasmendu-uneak izango ditu bizitza suertatu zaion esperientzia horretan, zalantza ugari pilatuko zaizkio: objetuen esanahia, soinekoen balioa, idatzita aurkituko dituen gutunena. Eta, batez ere, behingoz lotura bat eten beharra: "Hitz gehiegi nuen haientzat, hitzean hain motz geratuak ziren gurasoentzat".

Hala, behin barrua husturik, errazago egingo zaio, zentzu praktikoa erabiliz, gurasoen etxea hustea. Askatasun horrek, objektuak damurik eta beldurrik gabe oparitzera eramango duenak, gauza handi bat erakutsiko dio, gainera: ematea hartzea da. Eta amaitu ere, indarberriturik amaituko du kontakizuna: "Ez da ona malenkonian etsitza".

Laguntza-liburutzat ere har baitaiteke –psikoanalista dugu Lydia Flem–, hasi eta buka irakurtzen diren horietakoa dugu *Zer Berri* saileko azken emaitza. Arin eta eroso irakurtze horretan badu zerikusirik, noski, Joxan Elozegiren itzulpenak, ongi jaso eta fin bulkatu baititu euskarara jatorrizkoaren xehetasunak, ñabardurak eta, azken finean, giro osoa.

Oinordekotzaren azterketa ez dut esango aitzakia bat denik Lydia Flem-en kontakizun honetan, baina bai zubi bat benetan interesatzen zaion/zaigun horretara hurbiltzeko: hil ondoren ere noiz arte eta zer neurritan jarraitzen duten gudan munduratu gintuztenekiko loturek.

Mikel Garmendia.